

# IRAKURMENA

## 1. testua

### Egitekoa

Irakurri testua eta galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena, adibidean egin den bezala. 0 galdera adibidea da.

Idatzi letra dagokion laukian.

\* Erantzun zuzen bakoitzeko puntu 1 lortuko duzu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

## Arbelak

ILE apaintzaileak esan zidan, ilea mozten zidan bitartean: konturatu zara arbelez inguraturik gaudela? Ze arbel? galdetu nion, tutik ere ulertu gabe.

Azaldu zidanez, hiriko kale guztietan arbelak daude orain, lehen ez bezala. Komertzio guztiek atera dituzte arbelak eskaintzen berri emateko: kafea euro batean; gosaria 2,50 euro; asteazkenetan zerbezak 2x1... Esan zidanetik ez dut besterik ikusten, arbelak han eta hemen eskaintzak iragarri. Eta ez bakarrik taberna edo kafetegietan. Aurrekoan, arropa denda batean praka batzuk ordaintzen ari nintzela, saltzaileak, irribarre zabal bat ezpainetan, "jantzi basikoetan" zuten beherapenez hitz egin zidan. Eta ni harrituta geratu nintzen, lehen ez baitzidaten aurpegira begiratzen ere.

Argi dago krisiaren eraginez, bere burua saltzeko ahalegina egiten ari dela enpresa asko. Beste batzuek, aldiz, egoeraz kexatzeko erabili ohi dute denbora guztia, beste ezer egin gabe, garai hobeak etorriko diren esperantzaz.

Antzeko zerbait gertatzen da krisi pertsonalekin. Batzuek, banandu ostean (edo zehatzago esateko, bikotekideak uzten dituenean), beraien minean kizkurtzen dira, euren buruari pena ematen diote lur jota geratu arte. Badaude beste batzuk, aldiz, Fenix hegaztiaren moduan, errautsetatik berpiztu egiten direnak. Eta onartu behar dut ikaragarri gustatzen zaidala azken hauek begietan erakusten duten distira berri hori antzematea. Esna daude, hara eta hona begira, bat-batean inguruan jende asko dagoela konturatu balira bezala: jendea zeinekin maitemindu, ondo pasatu, zerbeza bat hartu, pasioz beteriko elkarrizketa bat izan< Eta horren guztiaren gainetik, badagoela pertsona bat, bakoitzaren burua, egunero seduzitu beharrekoa.

Hauek arbela atera eta klarionarekin "Kaixo, hemen nago" idazten ikusten ditudanean, poza sentitzen dut. Hor daude, batzuek esaten duten modura, merkatuan berriz ere, baina kontuz, nahastu barik, horrek ez baitu esan nahi eskaintzan daudenik.

Karmele Jaio, Deia, 2012/11/02. Moldatua.

## 1. testua

Aukeratu galdera bakoitzaren erantzuna :

Adb.: 0- Zein da egia?

- a. Ile-apaindegian ikusi zuen lehenengoz arbel horietako bat.
- b. Ez zuen arbelaren mezua ulertu.
- c. Ile-apaindegian komentatu arte, ez zen ohitura berriaz konturatu.

1- Zein da arbelen helburua?

- a. Dendarien eskaintzak jakinaraztea lehiakideei.
- b. Kafetegien merkataritza-teknikak beste denda batzuetara zabaltzea.
- c. Bezeroak erakartzea.

2- Zer nabaritu zuen Karmele Jaiok denda batean?

- a. Saltzailearen begiradan zerbait berezia zegoela.
- b. Aurrekoetan baino hobeto tratatu zutela.
- c. Beherapenak aurrekoetan baino handiagoak izan zirela.

3- Zeri lotzen dizkio idazleak saltzeko teknika berriak?

- a. Kexatu beharrari.
- b. Krisiari.
- c. Merkealdiei.

4- Zer gertatzen zaie batzuei krisi pertsonala dutenean?

- a. Bikotekidearengana jotzen dutela.
- b. Besteen egoeraz pena handia sentitzen dutela.
- c. Hondoak jotzen dutela.

5- Krisi pertsonala igaro ondoren,

- a. Batzuk konturatzen dira aukera gehiago daudela eta aprobetxatu behar direla.
- b. Begiradari erreparatzen zaio batez ere.
- c. Egutero saiatu behar da bestea seduzitzen.

6- Zein da aldea pertsona eta salgaien artean, idazlearen ustez?

- a. Pertsonen kasuan ez dagoela beherapenik.
- b. Pertsonak merkatura nahastu gabe ateratzen direla.
- c. Iragarkien mezua.

Idatzi erantzunari dagokion letra ondoko laukietan:

0.- C	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-
-------	-----	-----	-----	-----	-----	-----

# IRAKURMENA

## 2. testua

Egitekoa

Irakur ezazu artikulua, eta ondorengo orrian aurkitu testutik kendutako zatiak. Esaldi bat sobera dago. 0 adibidea da.

Idatzi letra dagokion laukian.

\* Erantzun zuzen bakoitzeko puntu 1 lortuko duzu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

## Harald erregea

Danimarkan, 958. urtean Gorm Zaharra erregea hil zen, eta haren seme Harald Gormsonn izendatu zuten oinordeko. ----- (0)-----, erresuma bikingoetan, boterea eskuratzeko, klanetako buruzagi boteretsuenak elkarren aurka borrokatzeko ohitura baitzegoen.

Haralden boterea haziz eta hedatuz joan zen, eta 970. urtean Norvegiako errege bihurtu zen. -----(1)-----, eta gure lurretara ere hurbildu zen; 978an Kantauri itsasoko kostaldera iritsi zen, Iberiar penintsularen iparraldean hainbat sarraldi egiteko asmoz.

Gainera, -----(2)----- Gormen semea. 960. urtean, germaniarrek bidalitako apaiz baten bisita jaso zuen Haraldek. Bikingoen bederatzi jainkoak existitzen ez zirela eta zeruan jainko bakarra, jainko kristaua, zegoela esan zion apaizak. -----(3)-----: burdina gorria jarriko zion eskuetan eta bere jainko bakarrak babesten bazuen, apaizak esandakoa sinetsiko zuen. Kondairak dioenez, burdina goriak ez zuen apaiza erre. Orduan, -----(4)----- Haren mendeko gehienek ez zieten berehalakoan beren sinesmen zaharrei uko egin, baina kristautasunaren hazia ereinda zegoen.

Haraldek ez zuen eskandinaviarren ohiko itxura. -----(5)----- zen, eta, horregatik, herritarrek Blåtand esaten zioten (blå hitzak beltzaran esan nahi du, eta tand-ek, aldiz, gizon handia). Ingelesez, ordea, Bluetooth (hortz urdin) goitizena jarri zioten. Batzuek diote Blåtand hitzarekin duen antzekotasun fonetiko hutsagatik itzuli zutela izena. -----(6)----- eta eritasun horrek hortz-haginak urdintzen dituelako jarri ziotela ezizena.

Harald 986. urte inguruan hil zen, Ingalaterra konkistatu zuen bere seme Svendek hala aginduta, ustez. Itxuraz, aitak abiatutako oinordekotza sistema gustuko zuen, baina ez zuen heriotza naturalaren zain egoteko pazientziarik.

Handik hamaika mendera, Ericsson enpresak telefonia teknologia berria garatu zuen -- -----(7)-----eskandinaviar erregearen omenez.

Nagore Irazustabarrena.  
Argia.com, 2347.alea. 2012/12/02. Moldatua.

## 2. testua

Jarri testu-zati bakoitza dagokion hutsunean. Idatzi erantzunak beheko laukian, adibidean egiten den bezala. Esaldi bat sobera dago.

- a. erregeak, orduan, froga garbi bat eskatu omen zion germaniar apaizari
- b. azal eta ile beltzaranekoa
- c. aita hil eta koroa semeak hartzen zuen lehen aldia zen Eskandinavian
- d. erregeak ez zuen amore eman eta etsai guztiak kanporatu zituen
- e. eta Bluetooth izena jarri zion
- f. haren botere eta ondasun grina ez zen Eskandinaviara mugatu
- g. erregeak bataiatzea eta erresuma guztia kristau bihurtzea erabaki zuen
- h. eskandinaviarrak kristautasunera konbertitzeko giltza izan zen
- i. baina beste teoria batek dio Haraldek eritroblastosi fetala izan zuelako

Idatzi erantzunari dagokion letra ondoko laukietan:

0.- C	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-	7.-
-------	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----

## IRAKURMENA

### 3. testua

Elkarrizketa baten sarrera irakurriko duzu. Ondoren, elkarrizketaren galderak irakurriko dituzu, alde batetik, eta galderen erantzunak, beste alde batetik.

Egitekoa

Elkarrizketaren galdera bakoitza dagokion erantzunarekin lotu behar duzu, adibidean egiten den bezala. Erantzun bat sobera dago. 0 adibidea da.

Idatzi letra dagokion laukian.

\* Erantzun zuzen bakoitzeko puntu 1 lortuko duzu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

## Juan Mari Arzaki elkarrizketa

Elkarrizketaren sarrera:

Oso atsegina da Juan Mari Arzakekin berriketan aritzea. Gauza desberdin ugari hitz egin daiteke berarekin, eta luzez gainera. Nolanahi ere, sukaldaritzaz mintzatzea du gogokoen. Izan ere, donostiar honentzat, gastronomia ez da lanbide soil; hori baino gehiago da: "pasio bat da."

Elkarrizketaren galderak:

- 0- Nolakoak izan ziren zure hasierak? Noiz eta nola jakin zenuen sukaldari izango zinela?
- 1- Zein da sukaldari batek har dezakeen pozik handiena?
- 2- Zein da zure iritzia gastronomiaren mundializazioari dagokionez?
- 3- Zein da eguneroko sukaldaritza erakargarriago bihurtzeko sekretua?
- 4- Zein da gustukoen duzun platera?
- 5- Gehiago gustatzen zaizu sukaldean aritzea jatea baino?
- 6- Ba al duzu sukaldetik kanpo praktika daitekeen zaletasunik?
- 7- Sukaldaria ez balitz, zertan arituko litzateke gaur egun Juan Mari Arzak?

### 3. testua

Elkarrizketaren erantzunak:

- a- Gehien gustatzen zaidan sukaldaritza euskalduna da. Nire ustez, munduko onena da, arte eta kontzeptu handikoa. Frantziako sukaldaritza ere oso artistikoa iruditzen zait, eta Txinako gastronomia perfekziora hurbiltzen dela...
- b- Ezingo nuke beste ezertan aritu. Bizitzari ez zaio gehiegi eskatu behar. Nik sukaldean aurkitu dut zoriontasuna. Gainera, nire alaba eta ostalaritzako ikasle gazteak lanean ikusita, esan dezaket gure sukaldaritzak bermatuta daukala etorkizuna.
- c- Egia esateko, orain bertan ez. Garai batean Espainiako eskubaloiko txapelduna izan nintzen, eta duela hogeita hamar edo berrogei urtetik golfean jokatzen aritzen naiz. Dena den, ni gauza gutxiarekin dibertitzen naiz. Ez diot bizitzari gehiegi eskatzen.
- d- Denetarik dastatu dut, eta gauza asko gustatzen zaizkit: kabiarra, foie-gras, globo arraina... Baina ikaragarri gustatzen zaidana da etxera itzultitakoan arrautza frijitu pare bat ondo egindako pikillo piperrekin jatea. Hori zoragarria da.
- e- Ni etxe honetantxe jaio nintzen, jatetxea daukagun honetan bertan. 1897koa da. Txikitan hasi nintzen sukaldaritzarekin harremanetan, baina inoiz ez nuen pentsatu sukaldari izaten amaituko nuenik.
- f- Politena, herri bakoitzak bere kultura eta nortasuna mantentzea da. Sukaldaritzan ez luke musikan gertatzen denak gertatu behar. Nire ustez, sukaldaritza mota bakoitza bere lekuan dastatu behar da.
- g- Dena dut gogoko: nik prestatutakoa jatea, besteentzat prestatzea, beste batzuek prestatutakoa jatea...
- h- Egin beharreko lanaz arduratzea. Ni sukaldearekin maiteminduta nago. Sukaldean aritzea plazer bat da niretzat, jolas bat bezalakoa. Sukaldariei beti esaten diet konturatu behar dutela prestatzen ari diren janariarekin jendea zoriontsu egingo dutela. Eta, horretarako, funtsezkoa da maitasunez egitea.
- i- Bizirik dagoela sentitzea, egiten duenak bizitasuna ematen diola ikustea. Eta, aldi berean, plazerra eskaintzea.

Teresa Sala.  
Euskonews, 214.zk., 2003/06/13-20. Moldatua.

Aukeratu galdera bakoitzaren erantzuna eta idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

0.- E	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-	7.-
-------	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----